



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO OTSAILAREN 12KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN 2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2025eko otsailaren 4ko Aginduaren bidez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2025-2028 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zen, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluekin bat etorritik. Horren arabera, erakunde horrek dirulaguntzen arloan garatzen duen jarduera aldeztu aurretik planifikatu beharko da plan estrategiko baten bidez.

Plan horrek honako hauek jasoko ditu: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak, eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.

Plan estrategikoa programatikoa izango dira, eta haien edukia ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Lau urteko indarraldia izango dute, hartzen dituzten jardueren izaera dela-eta epe luzeagoa behar denean izan ezik. Hori behar bezala arrazoituko da dokumentuan bertan.

Dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, erakunde honek plan estrategiko honetan jasotako dirulaguntzen programak ebaluatu beharko ditu, lortutako emaitzak, baliagarritasuna eta eragin sozial eta ekonomikoa aztertzeko, eta programa horiek mantentzea edo ezabatzea komeni den aztertzeko. Ebaluazio hori kontrol ekonomikoren arloan eskumena duen sailari jakinaraziko zaio.

Era berean, plana bultzatu duen erakundeak egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenen emaitzen arabera, lortu nahi diren helburuen lorpen-mailara edo inbertitutako baliabideen mailarako egokia den mailara iristen ez diren dirulaguntzen lerroak badaude, horiek aldatu ahal izango dira, eta eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztu edo, hala badagokio, ezabatu.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta indarrean dagoen bitartean gerora sortutako arrazoiengatik, beharrezkoa da OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2025-2028 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskina aldatzea.

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikokoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikokoan** egiaztatgarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7VB5-NB9M

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: MIGUEL TORRES LORENZO | 2026/02/12 10:59:46



Horrela, indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2025-2028 aldirako indarreko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea. Plan hori bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2025eko otsailaren 4ko Aginduaren bidez onartu zen.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 12a

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA EKONOMIA,
LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA

2026KO OTSAILAREN 12KO AGINDUAREN ERANSKINA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE
ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, OSALAN- LANEKO
SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN 2025-2028 ALDIRAKO
DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA.

OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2028 ALDIRAKO

1. SARRERA

Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikulua xedatzen duenez, erakunde honek garatzen duen dirulaguntza jarduera aldeztetik planifikatu beharko da plan estrategiko baten bidez.

Planak honako hauek jasoko ditu: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak, eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak, planaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Plan estrategikoak programatikoak izango dira, eta haien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Lau urteko indarraldia izango dute, hartzen dituzten jardueren izaera dela-eta epe luzeagoa behar denean izan ezik. Hori behar bezala arrazoituko da dokumentuan bertan.

Dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, erakunde honek plan estrategiko honetan jasotako dirulaguntzen programak ebaluatu beharko ditu, lortutako emaitzak, baliagarritasuna eta eragin sozial eta ekonomikoa aztertzeko, eta programa horiek mantentzea edo ezabatzea komeni den aztertzeko. Ebaluazio hori kontrol ekonomikoaren arloan eskumena duen sailari jakinaraziko zaio.

Era berean, plana bultzatu duen erakundeak egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenen emaitzen arabera, lortu nahi diren helburuen lorpen-mailara edo inbertitutako baliabideen mailarako egokia den mailara iristen ez diren dirulaguntzen lerroak badaude, horiek aldatu ahal izango dira, eta eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztu edo, hala badagokio, ezabatu.

2. ERAKUNDE – ETA DENBORA-ERMUA

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuan jasotako eskumen eta eginkizunak betez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu Plan honek.

Denbora-eremuari dagokionez, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua arabera, DPE-k lau urteko indarraldirako aurreikuspenak jasoko ditu, 2025etik 2028ra bitartekoak.

3. HELBURUAK

Erakundeak sustapen-jarduerarekin bete nahi dituen helburuak askotarikoak dira, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2026 Euskal Estrategian ezarritako ardatzen eta helburuen barruan kokatzen dira, bai eta Osalanen 2025eko kudeaketa-planaren barruan ere.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN LERROAK

Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2026 Euskal Estrategian ezarritako ardatzekin eta helburuekin bat etorriz, eta Osalanen 2025eko Kudeaketa Planari jarraiki, hauek dira dirulaguntzen ildoak biltzen dituzten ardatz estrategikoak:

I. ARDATZA: KULTURA. LAP EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURAL GISA

- *1. Helburu Estrategikoa: Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena.*
 - 1. dirulaguntza lerroa.- ZAE-Zuzendaritzaren Aurrerabiderako Elkartearantzako dirulaguntza, laneko segurtasun eta osasunari buruzko sentsibilizazio eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egiteko.
 - 2. dirulaguntza lerroa.- Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioan prestatzeko (ADI proiektua).
 - 3. dirulaguntza lerroa.- EHUri. Laneko medikuntzako katedra.

II. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LAP ERAKUNDEEN (ADMINISTRAZIOAK, ENPRESA PUBLIKO ETA PRIBATUAK) BIKAINASUN EZAUGARRI GISA ENPRESA-SARE JASANGARRI, MODERNO ETA LEHIAKOR BAT SENDOTZEAREN TESTUINGURUAN

- *4. Helburu Estrategikoa: Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAParen eredu bat dute.*
 - 4. dirulaguntza lerroa.- Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria.
 - 5. dirulaguntza lerroa.- AZTI Fundazioari, Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren balio-katerako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala bultzatzeko eta garatzeko.

- 5. *Helburu Estrategikoa: Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murrizten dira.*
 - 6. dirulaguntza lerroa.- SEA-Arabako Enpresentzako laguntza, osasuna sustatzeko programa.

III. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZAK LANEN SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA NABARMENTZEN DUTE

- 7. *Helburu Estrategikoa: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira.*
 - 7. dirulaguntza lerroa.- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziari.
 - 8. dirulaguntza lerroa.- BAME/BAE-rako irakaskuntza-unitateen sorrera bultzatzea.
- 8. *Helburu Estrategikoa: Laneko arriskuak prebenitzeko egungo ereduan (pertsona autonomoak, plataformak, etxeko lana) txertatzeko zailtasunak dituzten lan-moduen azpian dauden kolektiboen lan-baldintzak eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzen dira.*
 - 9. dirulaguntza lerroa.- Prestakuntzako eta dibulgazioko dirulaguntza (autonomoak eta ekintzaileak).
- 9. *Helburu Estrategikoa: Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima-aldaketa).*
 - 10. dirulaguntza lerroa.- Prebentzio-ordezkarien prestakuntza.
 - 11. dirulaguntza lerroa.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko jarduerak (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioa).
 - 12. dirulaguntza lerroa.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak.
 - 13. dirulaguntza lerroa.- Europako SAFERA taldearen esparruko ikerketa-proiektuak (Joint Programming and funding initiative to strengthen research on industrial safety).
 - 14. dirulaguntza lerroa.- EHUri. Laneko arriskuen prebentzioko masterra.

- 12. *Helburu Estrategikoa: Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotzen da, LAParen kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte-determinatzaileak barneratzen dituena.*
 - 15. dirulaguntza lerroa.- OSALANen Kontseiluan eta batzordeetan parte hartzegatiko finantzaketa:
 - EAEn legez eraturako enpresa-elkarteak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera ordezkaritza handiena dutenak.
 - Erakunde sindikalak, hauteskundeetako ordezkaritasunaren proportzioan ordezkaritza handiena dutenak.
 - Euskadiko kooperatibak.
 - 16. dirulaguntza lerroa.- Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko kideei, ETEen kultura prebentiborako euskal behatokiaren jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera.

Eranskinean zehazten dira helburuak, adierazleak, eduki ekonomikoa, zein sektoreri zuzenduta dauden eta arestian zerrendatutako dirulaguntza lerro bakoitza emateko prozedura. Ildo horiek alda daitezke, batez ere aurreikuspen ekonomikoei dagokienez, erakunde honen aurrekontu-aukeren arabera; kasu horretan, plan hau eguneratuko litzateke.

ERANSKINA

OSALAN- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN 2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOARENA:

ERANSKI NA

1. Helburu Estrategikoa: <i>Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena</i>				
1.dirulaguntza-lerroa: Dirulaguntza APD-Asociación para el Progreso de la Dirección elkarteari, laneko segurtasun eta osasunari buruz sentsibilizatzeko eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egiteko				
Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa				
Helburua: Enpresaburuak LSOean sentsibilizatzea eta prestatzea.	2025	2026	2027	2028
1. ekintza: Ezagutza sortzeko eta sentsibilizatzeko ekitaldiak antolatzea.				
1.adierazlea: Jardunaldi kopurua	3	3	3	3
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	15.000	15.000	15.000	15.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> EAEko enpresaburuak 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

1. Helburu Estrategikoa: <i>Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena</i>				
2.dirulaguntza-lerroa: Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioan prestatzeko (ADI proiektua)				
Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa				
Helburua: Lanbide Heziketako ikasleen artean laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea eta prebentzioaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzea, haiek lan-merkatuan sartu aurretik.	2025	2026	2027	2028
1. ekintza: Informazio eta sentsibilizazio ekintzak diruz laguntzea.				
1. adierazlea: ADI proiektuan prestatutako LHko ikasle kopurua	500	500	500	500
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	20.000	20.000	20.000	20.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketa 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

1. Helburu Estrategikoa: *Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena*

3.dirulaguntza-lerroa: EHUri. Laneko medikuntzako katedra

Organoa: Plangintza Zuzendariordetza

Helburua: Laneko medikuntzaren espezialitatearen sustapena EHU-n.

1. ekintza: Laneko medikuntza eta erizaintzako katedra EHU-Osalan.

1. adierazlea: Ikastaro/jardunaldien kopurua
 2. adierazlea: Online erronken kopurua

2025	2026	2027	2028
6	6	6	6
4	4	4	4

Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna

2025	2026	2027	2028
40.000	40.000	40.000	40.000

4.kapitulua

Zein sektoreri zuzentzen zaion

- EHU Euskal Herriko Unibertsitatea

Dirulaguntza emateko prozedura

- Dirulaguntza izenduna
- Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena

4. Helburu Estrategikoa: *Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAParen eredu bat dute*

4.dirulaguntza-lerroa: Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria

Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa

Helburua: Jardunbide egokien eta integrazio eraginkorraren adibideak eskaintzea, prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman behar bezala integratzeko bitarteko gisa.

1.ekintza: Saria ematea.

Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna

2025	2026	2027	2028
0	0	0	0

Zein sektoreri zuzentzen zaion

- EAEko enpresaburuak

Dirulaguntza emateko prozedura

- Norgehiagoka-EHAAn argitaratzea
- Hautagai-zerrenden balorazioa
- Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena

4. Helburu Estrategikoa: <i>Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAParen eredu bat dute</i>				
5.dirulaguntza-lerroa: AZTI Fundazioari, Euskadiko Elikaduraren eta Zuraren Balio Katerako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala bultzatu eta garatzeko				
Organoa: Zuzendariordekoa Teknikoa				
Helburua: Lehen sektorean laneko LAP kultura sustatzea, bereziki kaltebera den sektore horretara bideratutako berariazko proiektuen bidez. 1. ekintza: Lehen sektoreko proiektuak diruz laguntzea. 1. adierazlea: Egindako kanpainen kopurua 2. adierazlea: Bisitatutako enpresen kopurua	2025	2026	2027	2028
	2	2	2	2
	40	40	40	40
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	78.000	78.000	78.000	78.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Lehen sektorea 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

5. Helburu Estrategikoa: <i>Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murrizten dira</i>				
6.dirulaguntza-lerroa: SEA-Arabako Enpresentzako laguntza, osasuna sustatzeko programa				
Organoa: Plangintza Zuzendariordekoa				
Helburua: Osasunaren sustapena. 1. ekintza: Arabako enpresetan osasuna sustatzeko ekintzak. 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua	2025	2026	2027	2028
	4	4	4	4
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	30.000	30.000	30.000	30.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Arabako enpresak 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

7. Helburu Estrategikoa: <i>Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira</i>					
7.dirulaguntza-lerroa: Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziari					
Organoa: Administrazio, Antolaketa eta GGBB Zuzendariorde					
Helburua: Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak Euskadin jarraituko duela bermatzea, honek behin betiko egoitza izan arte. 1.ekintza: Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentzia diruz laguntzea, Bilbon duen behin-behineko egoitzako gastuak ordaintzeko. 1.adierazlea: Diruz lagundutako erakundeen kopurua		2025	2026	2027	2028
		1	1	1	1
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna		2025	2026	2027	2028
4.kapitulua		40.000	40.000	40.000	40.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion		<ul style="list-style-type: none"> Sektore Publikoa 			
Dirulaguntza emateko prozedura		Dirulaguntza izenduna			
		<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

7. Helburu Estrategikoa: <i>Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira</i>					
8.dirulaguntza-lerroa: BAME/BAE-rako irakaskuntza-unitateen sorrera bultzatzea					
Organoa: Plangintza Zuzendariorde					
Helburua: Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea. 2. ekintza: Prebentzio Zerbitzuek BAME/BAErako irakaskuntza-unitateak sortzeko dirulaguntzak ematea. 1. adierazlea: Diruz lagundutako irakaskuntza-unitateen kopurua		2025	2026	2027	2028
		1	1	1	1
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna		2025	2026	2027	2028
4.kapitulua		150.000	150.000	150.000	150.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion		<ul style="list-style-type: none"> Sektore Publikoa 			
Dirulaguntza emateko prozedura		Norgehiagoka-EHAAn argitaratzea			
		<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

8. Helburu Estrategikoa: *Laneko arriskuak prebenitzeko egungo ereduan txertatzeko zailtasunak dituzten lan-moduen azpian dauden kolektiboen lan-baldintzak eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzen dira*

9.dirulaguntza-lerroa: Prestakuntzako eta dibulgazioko dirulaguntza (autonomoak eta ekintzaileak)

Organoa: Zuzendariordekoa Teknikoa

		2025	2026	2027	2028
1.Helburua: Langile autonomo eta ekintzaileek laneko arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko gaitasuna areagotzea.					
1. ekintza: Prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea.					
1. adierazlea: Langile Autonomoak prestatzeko laguntza eskatzen duten erakundeen kopurua		4	4	4	4
2. adierazlea: Diruz lagundutako ikastaroetan prestatutako pertsonen kopurua		100	100	100	100
2. Helburua: Ekintzaileei laneko arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko gaitasuna helaraztea.					
1. ekintza: Prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea.					
3.adierazlea: Ekintzaileak prestatzeko laguntza eskatzen duten erakundeen kopurua		5	5	5	5
4.adierazlea: Diruz lagundutako ikastaroetan prestatutako pertsonen kopurua		50	50	50	50
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna		2025	2026	2027	2028
4.kapitulua		50.000	50.000	50.000	50.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> • Langile autonomoak • Ekintzaileak 				
Dirulaguntza emateko prozedura	Norgehiagoka-EHAAn argitaratzea				
	<ul style="list-style-type: none"> • Eskaeraren azterketa • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 				

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei, teknologikoei eta ingurumenekoei*

10.dirulaguntza-lerroa: Prebentzio-ordezkarien prestakuntza

Organoa: Zuzendariordeztza Teknikoa

	2025	2026	2027	2028
Helburua: Eragileei laneko arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko gaitasuna eta ezagutza ematea.				
1. ekintza: Arau-arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea.				
1. adierazlea: Egindako ekintza kopurua	55	55	55	55
2. adierazlea: Ekintza egiten duten pertsonen kopurua	800	800	800	800
2. ekintza: Arlo teknikoko prestakuntza-ekintzak diruz Laguntzea.				
1. adierazlea: Egindako ekintza kopurua	50	50	50	50
2. adierazlea: Ekintza egiten duten pertsonen kopurua	700	700	700	700
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	300.000	300.000	300.000	300.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza-zentroak, publikoak zein pribatuak, erakunde sindikalak eta prebentzio-zerbitzu egiaztatuak, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten enpresetako prebentzio-ordezkariei dagokienez 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Norgehiagoka-EHAAn argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> Aurkeztutako eskabideei buruz erakundeko teknikariek egindako txostenen azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei, teknologikoei eta ingurumenekoei*

11.dirulaguntza-lerroa: Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko jarduerak egitea (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioa)

Organoa: Plangintza Zuzendariorde

		2025	2026	2027	2028
Helburua: Laneko arriskuen prebentzioaren arloan sektore arteko edo sektoreko ekintzak egitea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lantokietan zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta langileei zuzenduta. 1.ekintza: Langileei eta enpresaburuei laneko arriskuen prebentzio-ekintzaren printzipioak edo printzipio horiek aplikatzeko arau zehatzak jakinaraztea eta zabaltzea.					
2.ekintza: Prebentzio-jardueren aplikazio praktikoaren eta materialaren ondoriozko arazoak aztertze eta konpontze laguntza tekniko. 3.ekintza: Produkzio-jardueraren sektore eta azpisektoreetan eman daitezkeen programen metodoak eta edukiak diseinatzean datzan prestakuntza, batez ere funtsean enpresa txikiz osatuta daudenetan. 4.ekintza: laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadin sustatzea.					
Lerro honen helburura bideratutako baliabide ekonomikoak Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak transferitutako aurrekontu-kreditutik datoz.		2025	2026	2027	2028
		581.484,14 (1)	577.264,97 (2)		
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa- eta sindikatu-erakundeak, fundazioak, elkarteak edo horiek eratutako beste erakunde batzuk 				
Dirulaguntza emateko prozedura	Norgehiagoka-EHAAn argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 				

(1) PRL Estatuko Fundaziotik 2024an jasotako zenbatekoa, 2025ean izapidetze aurreratuaren bidez gauzatua.

(2) PRL Estatuko Fundaziotik 2025ean jasotako zenbatekoa, 2026an izapidetze aurreratuaren bidez gauzatua.

9. Helburu Estrategikoa: <i>Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei, teknologikoei eta ingurumenekoei</i>				
12.dirulaguntza-lerroa: Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak				
Organoa: Plangintza Zuzendariordekoa				
Helburua: Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa sustatzea eta emaitzak zabaltzea. 1. ekintza: Laneko arriskuen prebentzioaren arloan berritzaileak diren ikerketa-proiektuak diruz laguntzea. 1. adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua 2. ekintza: Emaitzen zabalkundea. 1. adierazlea: Beste enpresa batzuei aplikatu dakizkiekeen diruz lagundutako proiektuen kopurua 2. adierazlea: Osalanen webgunean argitaratutako proiektuetara egindako bisiten kopurua	2025	2026	2027	2028
	4	4	4	4
	4	4	4	4
500	500	500	500	
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua Ikerketa-proiektuak	237.500	350.000	350.000	350.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona juridikoak, erakunde publiko edo pribatuak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, elkarte zientifikoak, administrazio publikoak, prebentzio-zerbitzuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuk. 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Norgehiagoka-EHAAn argitaratzea			
	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio-batzorde batek eskabideen azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

9. Helburu Estrategikoa: <i>Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei, teknologikoei eta ingurumenekoei</i>				
13.dirulaguntza-lerroa: Europako SAFERA taldearen esparruko ikerketa-proiektuak (Joint Programing and funding initiative to strengthen research on industrial safety)				
Organoa: Plangintza Zuzendariorde				
Helburua: Industria-arriskuaren kudeaketan ikerketa aplikatua eta berrikuntza sustatzea, ingurumenaren eta gizartearen gaineko inpaktuak saihesteko, langileen laneko segurtasuna eta osasuna barne, bai eta emaitzen hedapena ere. 1.ekintza: Ikerketa-proiektuak diruz laguntzea. 1.adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua	2025	2026	2027	2028
	2	2	2	2
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	200.000	200.000	200.000	200.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona fisiko edo juridikoak, erakunde publiko edo pribatuak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, elkarte zientifikoak, administrazio publikoak, prebentzio-zerbitzuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuk. 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Safera taldeko Ebaluazio Batzorde batek eskabideak aztertzea eta deialdia finantzatzen duten Safera kideek osatutako Batzordeak hautatzea. Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena. 			

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei, teknologikoei eta ingurumenekoei*

14.dirulaguntza-lerroa: EHUri. Laneko Segurtasun eta Osasun Masterra

Organoa: Zuzendariordekoa Teknikoa

Helburua: LAPeko etorkizuneko profesionalen prestakuntza praktikoa. 1. ekintza: Kanpoko irakasleen bidezko prestakuntza diruz laguntzea EHUko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Masterrean. 1. adierazlea: Osalaneko teknikariek emandako irakaskuntza-orduak 2. adierazlea: Genero-ikuspegidun irakaskuntza-orduak	2025	2026	2027	2028
	65	65	65	65
	4	4	4	4
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	13.000	13.000	13.000	13.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	• EHU Euskal Herriko Unibertsitatea			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	• Eskaeren azterketa • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena			

12. Helburu Estrategikoa: *Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotzen da, LAPren kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte-determinatzaileak barneratzen dituena*

15. dirulaguntza-lerroa: OSALANeko Kontseiluan eta Batzordeetan parte hartzeagatiko finantzaketa:

- EAEn legez eraturako enpresa-elkarteak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera ordezkarriztarik handiena dutenak.
- Erakunde sindikalak, hauteskundeetako ordezkagarritasunaren proportzioan ordezkarriztarik handiena dutenak.
- Euskadiko kooperatibak.

Organoa: Administrazio, Antolaketa eta GGBB Zuzendariordekoa

Helburua: Gizarte-eragileek laneko arriskuen prebentzioaren politika orokorrean parte har dezaten erraztea, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bitartez. 1. ekintza: Osalanen Kontseilu Nagusian parte hartzeko dirulaguntza ematea.	2025	2026	2027	2028

1. adierazlea: Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bilera-kopurua	4	4	4	4
2. adierazlea: Kudeaketa Planaren jarraipen-bileren kopurua	2	2	2	2
3. adierazlea: Prestakuntza Batzordearen jarraipen-bileren kopurua	4	4	4	4
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua: Enpresa-elkarteak	239.506	245.494	245.494	245.494
Erakunde sindikalak	339.554	348.044	348.044	348.044
Kooperatibak	56.591	58.006	58.006	58.006
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan legez eraturako enpresa-elkarteak, ordezkaritza handiena dutenak Ordezkaritza handieneko erakunde sindikalak. Euskadiko kooperatibak. 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			

12. Helburu Estrategikoa: *Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotzen da, LAPren kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte-determinatzaileak barneratzen dituena*

16.dirulaguntza-lerroa: Elkarrizketa Sozialeko Mahaiko kideei, ETEetako prebentzio-kulturaren euskal behatokiaren jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera.

Organoa: Administrazio, Antolaketa eta GGBB Zuzendariordetza

	2025	2026	2027	2028
Helburua: Laneko segurtasuna eta osasuna bultzatzea.				
1. ekintza: Jarraipen-batzordean onartutako ekintzak.				
1. adierazlea: Egindako ekintzen kopurua	35	35	35	35
Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna	2025	2026	2027	2028
4.kapitulua	250.000	250.000	250.000	250.000
Zein sektoreri zuzentzen zaion	<ul style="list-style-type: none"> Enpresaburuen elkarteak eta sindikatuak 			
Dirulaguntza emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna			
	<ul style="list-style-type: none"> Eskaeraren azterketa Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena 			